

- Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?
-

Gure enpresan beste enpresekin, asosiazioekin eta erakunde publikoekin egongo gara kontaktuan. Enpresak eta erakunde publikoak gure bezeroak izango dira gure zerbitzuak haientzako bideratuta daudelako. Horrez gain, asosiazioekin kontaktuan egongo gara haien taldean dauden ezinduek enpresetan lan egitera bideratuko ditugulako.

Gure helburua ezinduei lan egitera bideratzea denez, haiekin kontaktuan egongo gara dituzten bizi-baldintzak aztertzeke. Horretarako alokatutako lokalean haiekin bilduko gara honetaz mintzatzeko, eta lan egin dezaketen enpresak aztertzeke eta aukeratzeko.

Mungian zehazki, 2 enpresa daude pertsonak lana bilatzen laguntzen dutenak, Lanbide eta Behargintza eta hauekin kontaktua mantentzea funtsezkoa da. Beraz, guztira 2 bilera egingo ditugu gure proiektua aurkezteko eta azaltzeko gure helburuak jakin dezaten. Bilera bat Lanbiden eta beste bat Behargintzan. Aurkezpen bilera onuragarria izateko, Lanbideko eta Behargintzako buruzagiekin eta hauen kargu garrantzitsuenekin biltzea komeni da. Behin, Mungiako erakunde publikoekin harremanetan jarri ondoren, Bilbora hedatuko ginateke. Bilbon lana bilatzeko hainbat enpresa daude, hala nola, [ETT](#)-ak. Enpresa hauek Bilboko 29 enpresa dira. Beraz, haiekin harremanetan jarriko ginateke, une finko baterako lana lortu ahal dezaten ezinduek.

ETT-ekin harremanetan egongo gara ezinduei lana bilatzen gabiltzaten heinean lan egin dezaten. Bi aukera aurreikusten ditugu; lehenengoa ETT-i kobratzea diru bat bidalitako ezinduen kopuruaren arabera. Bigarrena, ez kobratzea, hau da, dirurik gabe dohainik bidaltzea bezeroak denbora labur batean. Bi aukera hauen artean dohainik egitea erabaki dugu, baina, ez dugu baztertzen gure enpresa merkatuan finkatuta dagoenenan portzentai txiki bat kobratzea.

Lan egiteko modu hau bizkaia osora hedatu nahi dugu eta ondoren Euskal Herri osora.

Subentsioen segmentua egiteko merkatuaren ikerketa bat egingo dugu gure ekintza planak finkatzeko. Ezindu eta enpresen artean gure zerbitzuaren onura zehatzak komunikauko ditugu eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko helburuak finkatuko ditugu, kalitatezko arreta lortzeko.

Enpresen segmentua ere garrantzitsua da, gure zerbitzuak merkatuan eragina izango duelako eta honen zerbitzua egokitzeko. Enpresa txiki eta ertainekin zerbitzu ezberdin bat edukiko dugu haien fakturazio tasa aztertuz, gure zerbitzuak ahalbidetu dezagun. Enpresa handiekin, berriz, prezio finko bat mantenduko dugu.

Hainbat estrategia eta kanal erabili daitezke, hala nola:

Marketin Digitala:

- **Webgune eta SEO (Search Engine Optimization):** Ezinduek zerbitzua bilatzeko orduan, gure webgunea bilatzaileen lehenengo emaitzen artean agertzea funtsezkoa izango da. Horretarako, webgunean egindako edukiak optimizatzea eta gako-hitzak erabiltzea beharrezkoa izango da. Gure kasuan [Fundacion Adecco](#) erabili dezakegu erakunde kolaboratzaileen sarea delako.
- **Sare sozialen erabilera:** Instagram, Facebook, LinkedIn, TikTok eta bestelako sare sozialen bidez, iragarkiak eta eduki erakargarriak sortu genezakegu. Horrek gure zerbitzua ikusgarriago bihurtzen du eta zuzenean konektatzen gaitu bezeroekin.

Marketin Tradizionala:

- **Iragarkiak telebistan, irratan eta prentsan:** [EL CORREOS](#)-ekin kontaktuan jarriko gara, gure enpresaren helburua eta ezinduengan edukiko dugun eragina azaldu beharko dugu. Gure enpresa ikusgarritasuna izateko eta ezagutarazteko. Ondorioz, baliteke ezindu eta enpresa gehienak gudan etortzea.
- **Flyer eta kartelak:** Merkataritza-guneetan edo jende pilatutako eremuetan (adibidez, azoketan) banatzea.

Public Relations (PR) eta Inongo Komunikazioa:

- **Prentsa-oharrak eta artikuluak:** gure enpresaren berri komunikabideetan zabaltzea prentsa-oharrak bidaliz edo artikuluak argitaratuz.
- **Influencer eta kolaborazioak:** Ezagunak diren pertsona edo markekin elkarlanean aritzea, agentziaren ikusgarritasuna handitzeko.

Zerbitzu Pertsonalizatuak eta Kalitate Handiko Lana:

- **Bezeroen esperientzia onak:** Zerbitzu pertsonalizatuak eta kalitate handiko lanak eskainiko dugu, horrela gure bezeroek ahalik eta gehien hitz egingo dute gure enpresataz.